

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Ekosistema bat,
zaintza eredu
eraldatzeko**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeke telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Denei eragiten dien gaia	3
Zaintza ekosistema baten beharra.....	4
Bizi Berri etxeek, urtebete	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentziak eskaerak aurkeztu edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Denei eragiten dien gaia



Badira gai batzuk herritar guzti-guztiei eragiten dietenak, eta horietako bat da adinekoen zaintzaren gaia.

Zahartzaroa inolako mendekotasunik gabe, kognitiboki ondo, emozionalki ondo, bakardaderik sentitu gabe edo erabateko autonomiaz bizitzeko aukerarik ez dute izango guztiek. Eta zortedun gutxi horiei, ziur asko, beste norbaiten zaintzez arduratzea egokituko zaie. Funtsean, ia herritar guztiek beharko dituzte zaintzak egunen batean, eta zaintzaile ere izango dira.

Historikoki, familiak hartu izan du bere gain zaintzen pisua, batik bat familiako emakumeek. Alabaina, familia ereduak aldatu egin dira, gizartea bera ere aldatu egin da, eta familiak ez dira aski zaintza behar guztiei erantzuteko. Administrazio publikoek beraiek bakarrik ere ez dute gaitasunik herrietan dauden zaintza behar guztiei aurre

egiteko. Azpeitian, bertan, adibidez, laster lau herritarretatik batek 65 urte baino gehiago izango ditu.

Horren aurrean, Azpeitiko Udalak beharrezko ikusten du zaintzen eredia eraldatzea, eta eraldaketa horrek nolakoa izan behar duen herri bezala hausnartzea. Zaintza ekosistema bat sortu nahi da, zaintza plan bat diseinatzeko. Sortu berri den zaintza mahaiak gidatuko du prozesua.

**Laster lau
herritarretatik batek
65 urte baino gehiago
izango ditu.**

Zaintza ekosistema baten beharra



Sortu berri da Azpeitiko zaintza mahaia, eta hark gidatuko du zaintzen eraldaketarako prozesua. Lehenik eta behin, diagnostiko bat egingo da, gaur egungo zaintza ereduaren gaineko hausnarketa egiteko eta indarguneak eta ahuleziak identifikatzeko. Diagnostiko horretatik abiatuta, datozen urteetarako zaintza plan bat diseinatuko da. Asko eta asko dira zaintzen inguruan ekarpen handia egin dezaketenak, eta horien guztien ahotsa bildu nahi da.

Asko hitz egiten da zaintzaz. Zaintzaz ari garenean, ordea, zertaz ari gara?

Funtsean, pertsonen ongizate fisikoa, emozionala eta soziala zaintzeko egiten diren ekintza guztiez.

Adibidez, zaintzaren barruan sartzen dira pertsona baten oinarritzko beharrak (higiene, elikadura, mugikortasun beharrak...) asetzea, babes afektiboa eskaintzea, komunitatean integratuta dagoela ziurtatzea...

Kontzeptu zabala da, beraz?

Bai, oso zabala, eta eguneroko bizitzan oso presente dagoena. Jaiotzen den unetik hasita, zaintza premiak ditu pertsonak, eta bizitzako gainerako etapetan ere izango ditu. Era berean, beste norbait zaintzea ere askotan tokatuko zaio.

Zaintza premia hori, ordea, betidanik egon izan da. Zer aldatu da zaintzen gaia hain pil-pilean egoteko?

Hainbat faktore elkartu direla gizartean: aldaketak bilakaera demografikoan (jaiotze tasa baxua, bizi itxaropen gero eta luzeagoa, adineko gehiago...); komunitateko loturen galera eta indibidualizazioarako joera orokortua; familia-ereduaren eraldaketa; lan munduan izandako aldaketak... Horien guztien eraginez, ezintasuna nabari da herritarren zaintza beharrei erantzuteko.

Gainera, zaintza beharrak gehitu egingo direla ematen du, ezta?

Bai, batik bat adinekoen zaintzari lotutakoak. Aurreikuspenen arabera, 2031. urtean azpeitiarren ia laurdenak 65 urtetik gora izango ditu; 3.900 adineko baino gehiago izango dira herrian urte horretan. Mendekotasunari dagokionez, hemendik hamar urtera, 2035ean, ia 500 pertsona izango dira 80 urtetik gorako mendekoak; %38ko haziko da mendeko pertsonen kopurua.

Zaintza krisiaz hitz egin daiteke?

Zalantzarik gabe gizarteko erronka nagusietako bat da zaintzen gaia. Argi geratzen ari da administrazio publikoek bakarrik ezin diotela aurre egin, eta noski, familiek bakarrik ere ez.

Zaintzen inguruan zeresana duten guztiak artikulatu nahi dira.

Horren aurrean, zer proposatzen du Azpeitiko Udalak?

Azken urteotan ere ahalegin nabarmena egin du, eta hainbat zerbitzu jarri ditu martxan adinekoei beren nahien arabera bizitzan jarraitzeko aukera emateko (etxe tutelatutak, etxeko zaintza integrala...). Hala ere, esan bezala, erronka gero eta potoloagoa da, eta beharrezko ikusten du zaintza eredu berri baten inguruko herri hausnarketa bat egitea; horretarako, zaintzen eraldaketarako prozesu bat abian jarriko du. Beste hitz batzuetan esanda, Azpeitiko zaintza ekosistema osatzea nahi du. Lankidetzaren ereduaren oinarritutako da ekosistema hori, eta berak gidatuko du zaintzen eraldaketa prozesua.

Adinekoen zaintza izango du ardatz?

Bai.

Zaintzen ekosistema esaten denean, zer esan nahi da?

Zaintzak erdigunean jarriko dituen herri zaintzaile bat nahi badugu, nahitaezkoa izango da gaur egungo zaintzen ereduaz aztertzea, zaintzen gaineko erantzukizuna partekatu eta bakoitzak beretik konpromisoak hartzea. Horregatik, zaintza ekosistemak zaintzen inguruan zeresana duten guztiak artikulatu nahi ditu.

Adibidez, zein izan daitezke zaintza ekosistema horren parte?

Asko eta asko dira zaintzen inguruan ekarpen handia egin dezaketenak: senideak, botikariak, etxeko langileak, dendariak, osasun arloko profesionalak, gizarte langileak... Horregatik, Azpeitiko zaintza ekosistemak herritar, eragile sozial, erakunde publiko (gizarte zerbitzuen sistema, osasun sistema...) eta entitateak artikulatuko ditu, ekimen publikoak nahiz pribatuak, horretarako espreski sortuko diren espazioen bidez.

Eta nola egingo da artikulazio lan hori?

Zaintza mahaia sortzea izan da lehen urratsa. Dagoeneko sortuta dago, eta uneotan honako hauek daude mahai horretan: Azpeitiko Udala (Gizarte Zerbitzuak eta Parekidetasun Saila); Osakidetza; Adinkide; Nagusilan; Baigera; San Martin egoitza; etxez etxeko laguntza, etxe tutelatutako eta eguneko zentroa kudeatzen dituen enpresako ordezkaria; etxez etxeko laguntza zerbitzuko langilea; eguneko unitateko hezitzailea; botikari bat eta gurasoak zaintzen dituen herritar bat. Mahaia, ordea, ez da itxia, eta kide gehiago ere har ditzake aurrerantzean.

Zabalduz eta Matiaren laguntza ere izango du zaintza mahaia.

Zer egingo du zaintza mahaia?

Lehen pausua herri hausnarketa bat egitea izango da, zaintzen ulkerak eta antolaketaren inguruko ikuspegi eta diagnostiko partekatu bat sortzeko. Gaur egungo adinekoren zaintza ereduaz aztertuko du, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko. Prozesu horretan ahalik eta eragile eta herritar gehienek parte hartzeko ahalegina egingo du.

Diagnostikoa egin ahal izateko, aldizkari honekin batera, galdetegi bat bidali da herriko etxe guztietara ere. Oso garrantzitsua da galdetegi hori betetzea, eta herriko hainbat puntutan jarri diren kutxetan uztea, maiatzaren 9a baino lehen. Zenbat eta herritar gehiagoren ikuspegia jaso, orduan eta hobeto. SIIS ikerketa zentroak egindako azterketaren emaitzak ere erabiliko dira diagnostikorako. Horrez gain, herriko eragile eta norbanakoei elkarriketak egingo zaizkie, banaka eta taldean.

Diagnostikoa egin ahal izateko, galdetegiak betetzeko eskatuko zaie herritarrei.



Orduan, diagnostiko bat egitea izango da lehen pausoa. Eta handik aurrera, zer?

Hausnarketa prozesuaren ondoren, uda aurretik, topaketa batzuk egingo dira, emaitzak aurkezteko, eta herritar guztiak gonbidatuko dira. Ondoren, diagnostiko hori oinarri hartuta, zaintza plan bat garatuko da, zaintza ekosistema osatzen dutenen artean. Zaintza ereduaren eraldaketarako bide-orria izango da plan hori.

Plan horren bidez zer lortu nahi da?

Beharrezko ikusten da zaintzek duten garrantziari buruzko sentsibilizazio lana egitea; zaintzaileek egiten duten lana aitortzea; eta zainduak diren pertsonen zaintzak modu duinean eta pertsonalizatuagoan jasotzea ahalbidetzea.



Bizi Berri etxeek, urtebete

lazko apirilean sartu ziren lehen bizilagunak Eliz kaleko Bizi Berri etxe tutelatueta. Hamabi etxeko etxepea da, eta gaur gaurkoz, guztiak beteta daude. Etxeen balorazio "oso ona" egin du udalak; izan ere, uste du etxeak eragin positiboa ari direla izaten bertan bizi diren pertsonengan. Erabiltzaileek beraiek ere "oso gustura" daudela helarazi diote udalari.

"Babestuta eta seguru"
sentitzen direla
nabarmetzen dute
bizilagunek.

Batik bat bakarrik bizi nahi ez dutenentzat edo beren etxeetan oztopo arkitektonikoak dituztenentzat dira Bizi Berri etxeak. Alde horretatik, etxeetan "seguru eta babestuta" sentitzen direla nabarmendu izan dute bizilagunek. Oztopo arkitektonikorik gabeko etxeak izanda, norbere etxean baino erosoago daudela ere aipatzen dute.

Logela batekoak dira lau etxe eta bi logelakoak zortzi. Etxe guztiek dute beren sukalde eta egongela, komuna eta trastelekua; baita beste zenbait elementu ere: altxatzen den ohea, telealarma... Etxeen beheko aldean, berriz, gune komunitario bat dago. Egunean hiru orduz gizarte langile bat egoten da, eta asteko egun batean psikologoa ere bai. Gune komunitarioan, berriz, hainbat ekintza antolatzen dira, bertan bizi direnentzat ez ezik, baita gainerako herritarrentzat ere.



Etxebizitza Bulegoa

Enparan Kalea 34

943 15 71 83

Ordutegia:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 08:00-14:00
- Astearteak: 08:00-13:30 eta 14:30-17:30
- Ostegunak: 08:00-13:30 eta 15:00-19:00 (udaletxean)

www.azpeitia.eus